

**22/2024 TXOSTENA, URRIAREN 15EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN
EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araberako, sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 6. artikulua egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari:

- a) Hizkuntza-politika.
- b) Euskara sustatzea.
- c) Kultura-ondarea.



- d) Historia- eta arte-ondarea kudeatu eta zaintzea; museoak, liburutegiak eta agiritegiak.
- e) Artearen eta kulturaren arloko jarduerak eta horien zabalkundea.
- f) Jarduera fisikoa sustatzea.
- g) Kirolak.
- h) Gizarte-hedabideak; irrati kontzesioak eta frekuentzien esleipena.
- i) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.

Artikulu horren bigarren apartatuan ezartzen denez, sail honi atxikitzen zaizkio «Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)» eta «Euskadiko Liburutegia» organismo autonomoak; «Euskal Irrati Telebista (EITB)» eta «Etxepare Euskal Institutua» zuzenbide pribatuko ente publikoak; «Euskadiko Orkestra SA» sozietate publikoa, eta «Basque Team Fundazioa» eta «Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa» sektore publikoko fundazioak.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek, 2024ko urriaren 31 baino lehen, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta haren bidez, 6. artikuluan horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 8an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Eskabide horren espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG_DEC_6010/24_02). Espediente horretan, txosten honetarako interesekoak diren agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoria.



- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua alde aurretik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 16 artikulua, 2 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Jarraian, kontratazio publikoari buruzko proiektuko artikulua aipatuko ditugu:

“4. artikulua. – Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.

[...]

5.– Sailburua kontratazio-organoa izango da, sailburuordetzen esparrutik kanpo geratzen diren gaie-tan, baldin eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, kontratuak txikitat jotzen ez badira, edo zuzen-darritza hauei dagozkien kontratu ez-txikiak badira: Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.

[...]

11.– Sailburuari dagokio sailaren organismo edo agintarien aurka jarritako errekurtsuak ebaztea, non eta beste organo baten eskumenekoak ez diren.

5. artikulua. – Sailburuordetzak.

1. – *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean, sailburuaren mende, Kultura Sailburuordetza eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza egongo dira.*

2. – *Sailburuordeek ahalmen hauek izango dituzte, esleituta dauzkaten jardun-arloetan:*

[...]

f) *Sailburuordetzako zuzendariak emandako ebazpenen aurka jartzen diren errekurtsioak ebaztea.*

[...]

h) *Kontratazio-organo gisa jardutea esleituak dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, baldin eta indarreko legeen arabera kontratu txikiak ez badira. Hala ere, kontratu txikietan ere kontratazio-organo gisa jardungo dute, baldin eta zuzenean mendean dituzten zuzendaritzen jardun-arloa gainditzen badute eta beren jardun-arloei dagozkien gaiak badira.*

[...]

r) *Bere eskumeneko eremuetan euskararen erabilera sustatzea, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoarekin bat.*

[...]

6. artikulua.– Zuzendaritzak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko zuzendaritza bakoitzaren burua zuzendaria izango da, zuzenean eta organikoki dagokion sailburuordearen mende egongo dena, salbu eta Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren, Zerbitzu Zuzendaritzaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren kasuan, horiek sailburuaren mende egongo baitira. Zuzendariak honako egiteko hauek izango dituzte, oro har:

[...]

e) *Gastu-baimenak ematea indarreko legerian kontratu txiki gisa tipifikatutako kontratuetan, euren jardun-arloei dagozkien espedienteetan, eta, oro har, kontratu horietan kontratazio-organo gisa jardutea.*

[...]

g) *Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzea eta irizpide horien jarraipena egitea zuzendaritzaren jardun-arloetan, hala nola: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, hala badagokio, hizkuntza-irizpideak xertatzea administrazio-kontratazioan eta dirulaguntzetarako deialdietan.*

8. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1. – *Dekretu honetako 6. artikuluan saileko zuzendariari esleitutako zeregin orokorrez gain, Zerbitzu Zuzendaritzak, sailburuaren mende, honako zeregin hauek izango ditu:*

1.1.– *Kudeaketa ekonomikoaren arloan:*

[...]

b) *Sailaren ekonomia eta aurrekontua kudeatzeko jarduerak egin eta koordinatzea, bai eta jarduera horiek exekutatzeko eta ebaluatzea eta haien jarraipena egitea ere. Zerbitzuen zuzendariak sailaren gastuak baimenduko ditu, baldin eta dekretu honetan beste organo batzuei esleitzen ez bazaizkie, eta alde batera utzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.*



[...]

1.2.– Laguntza juridikoaren esparruan, Aholkularitza Juridikoa, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, sailari zuzenbide-arloan aholkularitza emateko administrazio-zerbitzua da. Sailaren zerbitzu erkidea da, eta irizpide-batasunarekin jarduten du eremu horretan. Honako eginkizun hauek dagozkio:

[...]

e) *Sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriari lotutako prozedurak izapidetzea, saileko gainerako zuzendaritzek izapidetzen dituzten kontratu txikiak izan ezik, eta alde batera utzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenak eta beste organo batzuei arauz esleitutako eskumenak. Halaber, saileko organoei gai hauei buruzko aholkularitza ematea dago: sektore publikoko kontratuen arloko legeei buruz, lege horietan bertan araututako prozeduretan lege horiek zuzen aplikatzeari buruz eta kontratuak gauzatzeari buruz. Hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei esleitutako eskumenak.*

[...]

1,4.– Aurrekoetz gainera, kudeaketa transbertsaleko organoa denez, honako hauek dagozkio:

[...]

e) *Lanpostuen banaketa fisikoarekin eta ekipamenduarekin eta eraberritze-lanekin zerikusia duten saileko unitate guztien jardunak zuzentzea; hala ere, administrazioako beste sail batzuei gai horretan esleitutako eskumenak errespetatuko dira. Sailaren bulegoak mantentzea, eta atxikitako ondarea administrazioa eta kontserbatzea.*

[...]

i) *Sailburuordetza edo zuzendaritzaren baten eremua gainditzen duten gaietan, kontratazio-organogisa jardutea, baldin eta, indarreko legeen arabera, kontratuak txikitat jotzen badira.*

[...]

11. artikulua.– *Kultura Ondare, Jabetza Intelektual eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza.*

[...]

2.5.– *Jabetza Intelektualaren Erregistroari eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoari honako hauek dagozkie:*

[...]

b) *Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatutako eskubide, egintza eta kontratuen ziurtapena eta gainerako publikotasun-moduak.*

[...]

14. artikulua.– *Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza*

[...]

2.- *Ildo horretatik, eginkizun hauek izango ditu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak:*

a) *Euskararen erabilera normalizatzeko legeak garatzeko arauzko neurriak aztertu eta proposatzea, bai eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko hizkuntza-irizpide orokorrak ere.*

[...]

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Baliabide propioei egindako enkarguak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko kontratazio-organoei eskumena izango dute, baldintza berberetan, obrak gauzatzeko eta zerbitzuak emateko enkarguak egiteko, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera".

Kontratazio publikoan efizientzia areagotzeko, beharrezkoa da aldez aurretik programazio bat egitea, kontratuen plangintza, prestakuntza eta ikuskapena hobetzeko. Programazio hori gauzatzea honako hauei dagokie: kontratazio-organoei, kontratazioa sustatzen duten zerbitzuei eta kontratuaren arduradunei. Alde horretatik, txosten honen xede den dekretu-proiektuan, ikusten da kontratazio-organo ugari egotea eta kontratu txikien eta nagusien arteko bereizketa oztopo izan daitezkeela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan jasotako plangintza-betebeharra betetzeko

Horren haritik, esan beharra dago kontratazio-organoen edo -organoen egituraketa sailari berari dagokion antolaketa-gaia dela, baina, betiere, bete beharrekoak direla Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan ezarritako xedapenak.

Gogoan hartu behar da 116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen duela: «Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organok [...] salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».

Hori dela eta, sail honetako kontratazio-organok oso sakabanatuta daudenez eta kudeatzen dituzten kontratuak asko direnez, arreta berezia jarri behar da elkarrekin lizitatu daitezkeen kontratuetan nahigabeko zatikatzeak gerta ez daitezen, ez Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotako publikotasun-prozedurak saihesteko asmoz, baizik eta kontratazio-organo bakoitzak une bakoitzean zer izapidetzen duen ez jakiteagatik. Horregatik, ahalegin handiagoa egin behar da kontratazio-organoen arteko plangintzan eta koordinazioan.

Aurrekoarekin lotuta, ez dugu ahaztu behar kontratu txikiak salbuespena direla publikotasunaren eta lehia askearen araubide orokorrean, eta, beraz, halakoen erabilera mugatu egin behar dela, prozedura irekiaren eta ireki sinplifikatuaren bidez izapidetutako kontratu handien eta esparru-akordioaren mesedetan. Kasu honetan, behar-beharrezkoa da kontratazio-organo guztiak aldez aurretik planifikatzea eta koordinatzea, sortzen diren beharrak kudeatzeko orduan, ahal den neurrian alferrikako zatikatzeak edo lege-iruzurrak saihesteko. Horrela, modua izango dugu jakiteko zer kontratu txiki bildu daitezkeen kontratu handi batean.

Lehen adierazi den bezala, sinatu beharreko kontratu kopuruagatik edo Sailaren berezko beste arrazoi batzuegatik ezinbestekoa bada organoak ugaritzea, koordinazio-figura bat sortzea gomendatzen dugu, zeinak behar den informazioa izango baitu egin beharreko kontratazioaren plangintza efizientea egiteko; horrez gain, erosketak zentralizatzeko formulak erabiltzea gomendatzen dugu, arazoak edo disfuntzioak saihesteko.

Txosten honen xedea ez bada ere, gomendatzen da, hitzarmenak sinatzean, arreta berezia jartzea eta egiaztatzea benetan ez direla kontratuak, kontraprestazioetan duten kostu bidezko izaeragatik.

Bestalde, bigarren xedapen gehigarriak bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko eskumena ezartzen du; figura hori Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan dago araututa. Gomendatzen dugu saileko organo bati edo biri esleitzea enkarguak egiteko ardura, hain zuzen ere kontratazio publikoan koordinazioa, efizientzia, efikazia eta sinplifikazioa lortzeko.

Batzorde honek beste batzuetan jakinarazi duen bezala, bitarteko propioentzako mandatua lankidetzara publikoko modu bat da. Modu horretako lankidetzara publiko horrek kontratuzkoa ez den izaera instrumentala du, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan (kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaez agertu beharreko publizitatearen mende daude, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurrizko modukoak dira).

Kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta efizientziaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioei enkarguak egin ahal izateko, arrazoitu egin behar da, eta alderdi hauek islatu, besteak beste: enkargua egiten duen entitateak ez daukala zuzeneko bitarteko nahikorik; enkargua jasoko duen entitatea egokiena dela formalki (helburu sozialaren egokitzapena) eta materialki (bitarteko egoki nahikoa duela), eta, halaber, kudeaketako efizientzia-arrazoiak daudela.

Bestalde, lehen aipatutako 116/2016 Dekretuaren 3.1 artikulua ezartzen duenez, Gobernu Kontseiluari dagokio baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak eta esparru-akordioak egiteko.

Alde horretatik, aurrekontu-legeetan adierazi izan da Gobernu Kontseiluaren baimen horrek berekin dakarrela kasuan kasuko gastua baimentzea, bai eta pleguetan aurreikusitakoaren arabera egin litezkeen aldatetei eta luzapenei dagokien gastua ere. Halaber, hau jasotzen du Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117.1 artikulua: *«Kontratazio-espeditentea osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organoak, espeditentea onartzeko, eta adjudikazio-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespina ere ekarriko du, salbu eta aurrekontua aurrez ezarri ezin izan den aparteko kasuetan edo deskontzentrazio-arauek edo eskuordetze-egintzak kontrakoa ezartzen dutenean, halakoetan onespina eskatu beharko baitzaio organo eskudunari. Ebazpena kontratatzailearen profileen argitaratuko da».*

Horrela, dekretu-proiektuan kontratazio-organoak zerrendatzeak berekin dakar organo horietako bakoitzak, finkatutako mugen barruan, ordenamendu juridikoak kontratazio-organoei ematen dizkien eskumenak baliatzea; besteak beste, espeditentea onartzea (gastua onartzea ere ekarriko du) eta adjudikazio-prozedura irekitzea.

Hori dela eta, gomendatzen dugu gastua baimentzeko eskumena jasotzea, ez soilik 6. eta 8. artikuluetan (Zerbitzu Zuzendaritzari eta gainerako zuzendaritzei buruzkoetan), baita gainerako kontratazio-organoei buruzkoetan ere (hau da, sailburuordetzentzat eta sailburuarentzat, horiek ere kontratazio-organo gisa agertzen baitira).

Errekurtsoak ebazteko eskumena dekretu-proiektuaren 5.2.f) artikuluan dago jasota. Artikulu horren arabera, sailburuordeek, besteak beste, beren sailburuordetzako zuzendariak emandako ebazpenen eta administrazio-egintzen aurka jarritako errekurtsuak ebatziko dituzte. Horrek guztiak ez du eragotziko sailburuak eskumena izatea sailaren organismo edo agintarien aurka jarritako errekurtsuak ebazteko, baldin eta beste organo baten eskumenekoak ez badira, hala jasota baitago 4. artikuluen 11. apartatuan.

Saileko edozein eremutan euskara sustatzeko eskumenari dagokionez, aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartu zuen eta indarrean den erabakiaren arabera garatu behar dela eskumen hori, kontratazioaren eremuan, erabaki horren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak.

Hala ere, kontuan hartu behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen barruan.



Erosketa publiko estrategikoa bultzatzean, gomendatzen da kontuan hartzea 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua jasotzen duela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek informatu egin behar duela kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez: "Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta".

Halaber, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua indarrean jartzearen ondorioz – 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena–, 1/2024 Jarraibidea onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Administrazio Institutuzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Horren guztiaren xedea da laguntza ematea aipatutako Legearen testu bateginean (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren bidez onartua) kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzeko, bereziki 22. artikuluan dioena. Nolanahi ere, kontratazio publikoa arautzen duen esparruak ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da.

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.